

Hitzaurrea. Iparragirre. Bere heriotzaren mendeurrenean

Abenduaren azkenetako arratsalde iluna da lerro hauek idazten ari naizenean. Laster, egun gutxi barru, gurutzatuko dugu beste urtemuga bat, Jose Maria Iparragirrearen heriotze mendeurrena osatzera datorrena, hain zuzen.

Jose Maria Iparragirre Balerdi, Urretxun jaio zen, 1820.eko abuztuaren 12an, eta Itsasoko «Zozabarro» baserrian bukatu zituen bere egunak 1881.eko apirilaren 6an. Ez daude, beraz, bata bestetik oso aldendurik Iparragirren ibilaldi gorabeheratsuen hasiera eta bukaera puntuak.

Atsedena nekez ezagutu zuen ibilaldia, gure Euskal Herri zigortu honi etengabe eta alderdi guztietatik erasotzen dioten ezin ulertuaren haizeek, ia beti, eraginik eta bultzaturik.

Iparragirre Zeraingo eskolan ibilia zen, Gasteizen sakondu zituen ikasketak eta denbora laburrez bazen ere, Isidro Donearen ikastetxe madrildarrean ere tarteko izan zen eta bertan harrapatu zuen lehen gerrate karlistak. Gora-behera batzuren ondoren, Pretendentearen lerroetan esku hartu zuen gudu topaketa honetan, *neure herrikideenganako maitasuna beste iritzirik gabe*, Jose Manterolaren *Cancionero Vascon* irakurtzen dudanez.

Gudua ofizialki bukatuak, bere herriarengana biziki sentitzen zuen maitasunaren hegaletan mugitzen zela bere bizitza erakutsi zuen. Argi eta garbi adierazi zigun ez zela komenientziazko besarkadak eta konponketa hotz eta neurtutzat jotzen zituenak onartzearen aldeko. Errebolta suari pizturik eutsi zion eta herbesterako bidea hartu zuen. Bidaiari nekagaitza, ezinbanatuzko bere kitarra lagun zuela *Gitarra zartxo bat det*, euskal koblakarien buru, bere Herriaren mezulari bihurtu zen, eta behin baino gehiagotan, bere lurraldetik urrun bizi beharrean aurkitu zen. *Gazte gaztetandikan erritik kanpora...* Haren nortasunak *bere arima menperakaitzaren edertasuna adierazten du*, oharterazi zuen Antonio Peña eta Goñik Urretxuko egun gogoangarri batetan Zoro deitzen zioten, baina haren zorotasuna ez zen burukoa, bihotzekoa baizik. Zorionez, zorotasun sendagaitza, Isidoro de Fagoagak dioenez.

1853.ean *Gernikako Arbola* kantatu zuen Madrileko kafetegi batetan, eta euskal himno hau sortzea eta kantatzea izan zen Iparragirrentzat aurkezpen agiri hoberena gartzelako ateak irekitzeko.

Zibillak esan naute
bizi egoki
Tolosan biar dala
gauza erabaki;
giltza pian sartu naute
poliki poliki,
negar eguingo luke
nere amak baleki.

Jose Maria Iparragirre, mugarik ezagutzen ez duen eskenategi batetako askatasunaren kantaria da. Urretxuko Bertsolaria Herri izpirituaren haragitzea da. Iparragirrearen oroitzapenak, eduki unibertsalista nabarmenak dituen sinbolo izaki, bizi eta mardul dirau. Haren sentipenek gaur ere zutik dira eta haren kezka egungo egunekoak dira eta ez dute baliorik galduko etorkizunean ere, Euskal Herriaren izate berarekin bat baitatuz.

Urretxuko Koblakariari buruzko nire hitz hauek, Angel Cruz de Jakaren *Iparragirre bere heriotzaren mendeurrenean* liburuari begira idatzi ditut.

Badira urte banaka batzu Angel Cruz de Jaka Legorburu ezagutzen dudala, kulturaren alde egin duen lan onari esker. Ez dauzkat ahazteko *Akademia Ibiltariaren* zenbait bilera, zeren Zumarragako historialari hau izan baitzuen eragile nagusi, bere iraupena eta ongi erakutsitako kemenaren bitartez.

Jaka Legorburu ikertzaile zintzo eta zehatza da, kanpo lana eta artxiboko paperak zuzenik miaztearena txandakatzen dakiena. Zenbait argitalpen eginak ditu, eta besteak beste, honako hauek aipatuko dilut: *Sinfonia en Zumárraga*, *Historia de los Ipenarrieta y de sus casas-palacio* (azkeneko hau, Manuel Urkolarekin lankidetzan burutua).

Jaka Legorburuk ez du gaur-gaurkoa ia bere herrikide ospetsua den Iparragirrearen interesa. Ondo gogoan dut nola igande goiz batez –hirurogeigarren hamarkadaren hasieran alde-alde– «Zozobarro» eta Gabirian dagoen «Txapartegi» baserrietara eraman ninduen. «Txapartegin» izan zuen azken bizilekua Urretxuko Bertsolariak, eta oso oker ez banago, eta beraren atetara iristeko errekatxo baten gainean dagoen zubi txiki bat gurutzatu behar izan genuen.

Aipaturiko bi baserri hauetan –biak dira historiaren gai gaurregun– Iparragirreari buruzko xehetasunak entzun ahal izan nituen, interesgarri eta berriak zirenak niretzat. Egokiera hartan konturatu nintzen Jaka Legorburuk zeinen ongi ezagutzen zuen kantari urretxuar leinargiaren bizitza, eta *Iparragirre bere heriotzaren mendeurrenean* liburuaren egilea bat eginik dago berarekin.

Asko idatzi izan da Iparragirri buruz, eta honek baditu bere alde onak eta txarrak, noski, lanbide berdinari heltzeko orduan. Bide erraz samar eta ezagunari lotu nahi zaionarentzat honek eskaintzen duen alderdi erosoaren parean, zailtasuna areagotu egiten da bere lanaren poderioz obra maitagarri bat egin nahi duenarentzat, *Iparragirre bere heriotzaren mendeurrenean* idazterakoan bezala.

Iparragirriren jaiotze mendeurrenaren ospakizunarekin loturik dauzka Jaka Legorburuk bere haurtzaroko lehen oroitzapenak, eta egun gogoangarri hura ospatzeko ekintzak antolatzeaz arduratu ziren gizonari buruz dio: *Denak ezagutu nituen eta nortasun handiko gizonak ziren...*

Iparragirre bere heriotzaren mendeurrenean liburuaren egileak mutil gazte biografiatuaren bizitza ibiltariaren berri ematen digu. Baina denbora aurrera doa eta gertakariak hurrenez-hurren datoz. Iparragirre Amerika aldean ageri zaigu. Beste behin, Euskal Herria, gerratearen ondoriopean aurkitzen da, eta Jaka Legorburuk azpimarratzen duenez, ba omen ziren gurasoak beren semei, himnoaren bitartez jendetzak sutan jarri zituen Bertsolariak hitz egiten zietenak, zeren urte batzu lehenago beraiek ere egoera berdintsuan aurkitu baitziren.

Iparragirriren heriotza, Euskal Herrian gertatua, iradokor eta hunkigarri zaio egileari. Zumarragako «Kandido Txikik» landu zuen zerraldoa. Lau gizonek zeramaten bultzaka hilguri apala, «Zozobarro» etxe historikoaren horma zaharrak atzean utzirik, eta haietariko bat, Jose Javier Legorburu, Jaka Legorbururen aitona zen, xehetasun hau liburuak ez badakar ere.

Gernikako Arbolaren egilearentzat pozgarri izatekoa zenez, ziur nago horretaz, Urretxuko Eliza Nagusirantz astiro hurbiltzen ari zen segizioari azken agurra inguruko baserrietako neska-mutikoek egin zioten.

Iparragirre bere heriotzaren mendeurrenean Urretxuko Bertsolariari buruzko albiste sail trinko eta mardula da. Jaka Legorburuk sakonki bizi dituen berriz aberasturiko liburua da eta Jose Maria Iparragirri darion giza berotasunean bildurik eskaintzen digu.

Liburu hau irakurtzean biografiatuarengandik hurbil ikusten dugu geure burua, eta hauxe da *Iparragirre bere heriotzaren mendeurrenean* bezalako lan baten egilearentzat erdi-erditik asmatzea.



Hitzaurrea = Prólogo / Juan Garmendia Larrañaga. -
En: *Iparragirre. En el centenario de su muerte =
Iparragirre. Bere heriotzaren mendurrenean* / Angel
Cruz de Jaka Legorburu. - San Sebastián : Sociedad
Guipuzcoana de ediciones y Publicaciones, 1982. -
513 p. : il. ; 27 cm. (Colección Hombres del País). - P.
11-17. - ISBN: 84-7173-076-6